



## 2020-2021 IKASTURTERAKO JARDUKETA-PROTOKOLO OSAGARRIA ETA IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO JARDUNBIDEAK

(2021-2-12)

### I. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasiera presentzialaren aldeko apustu irmoa egiten du hezkuntza-maila guztietan, ikasle guztientzako hezkuntza integrala eta kalitate gorenekoa bermatzeko. Horretarako, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak eta beharrezko baliabideak izango ditu.

Covid-19k sortutako pandemiak udan izan duen bilakaera ikusita, eta ikasturte hasieran eta ikasturtearen lehen hiruhilekoan birusak izan dezakeen eragina aurreikusiz, neurri operatibo batzuk aurreikusi ditugu, ahal den neurrian arriskuak minimizatuz; betiere pandemiaren bilakaerara egokituko diren osasun-agintarien jarraibideen esanetara, eta lehentasunezko helburutzat honako hauek hartuta: ikasturte hasiera segurtasun-berme handienarekin ahalbidetzea –bai ikasleentzat, bai irakasleentzat eta irakasle ez diren langileentzat- eta ager litezkeen kasuak hobeto kudeatzen direla bermatzea.

Horrela, pandemiaren bilakaeraren eta proposatutako neurrien eraginaren jarraipena egin ahal izango da. Bilakaera horren arabera, hurrengo hiruhilekoak planifikatu ahal izango dira.

Covid-19k eragin ditzakeen balizko egoerei erantzuteko, ikastetxeak erreferentziatzko dokumentu hauek hartuko ditu kontuan. Hauen ildo orokorrek jarduteko esparru gisa balio dute, egoeraren arabera egokitu badaitezke ere:

1. Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra, Hezkuntza Sailarena.
2. 2020-2021 ikasturtea antolatzeko Ebazpenak
3. Ikastetxeko Kontingentzia Plana
4. Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko; Hezkuntza Sailaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezarriak

Azken asteotan Euskadin COVID-19ren intzidentzia areagotu egin dela eta, eta, litekeena da jatorria familia-eremuan, jarduera osagarrietan edo hezkuntza-eremutik kanpoko mugikortasunean duten kasuak agertzea ikastetxeetan. Pertsonen arteko harremana dela eta, ordea, transmisio-probabilitatea murrizteko neurriak hartu behar dira, eta



ikastetxeak eta haien ingurunea leku "seguru" bihurtu behar dira. Horretarako, hartu beharreko segurtasun neurriak definitzen dira. Horien artean daude pertsonen arteko distantzia, maskarak erabiltzea, espazio itxiak aireztatzea eta eskuen higieua, oinarritzko neurri gisa.

Ikasturtearen hasiera honetan, ekainaren amaieran ikastetxeetara bidali zen *"Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra (2020-2021 ikasturtea)"* dokumentuan ezarritako jarraibideak betez, **Ikastetxearen Urteko Plana** osatuko dute ikastetxeek, hezkuntza antolatzeko eta planifikatzeko oinarritzko dokumentua; bai eta **Kontingentzia plana** ere, Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren jarraibideei helduz egindako prebentzio- eta higieua-neurriak argi eta garbi jasotzen dituen. Plan horrek erreferentzia gisa hartuko du *"Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko"* dokumentua.

Bestalde, jada deskribatutako prebentzio-neurri guztiez gain, infekzioari azkar eusteko jarduketan barruan sartzen dira sintomak hasten dituzten pertsonak ikastetxean egoki kudeatzea, bai eta Osasun Publikoarekiko eta Osakidetzarekiko koordinazioa ere.

Ikastetxeak parte hartu behar du kasu susmagarrien identifikazio goiztiarrean, kasu horien isolamenduan, eta kontaktu estuak identifikatuta eduki behar ditu miaketa errazteko; era berean, kontaktu estuen jarraipena eta Osasun Publikoarekiko koordinazioa lagundu behar ditu, kasuen taldekatzeak errazago identifikatzeko, eta transmisio-foku posibleak detektatzen lagundu behar du kolektibo espezifikoetan eta ikastetxeko arlo edo jarduera zehatzetan, edo ikastetxerako lekualdatzeetan.

Osasun Publikoak eta Zaintza Sareak, Erakunde Sanitario Integratuekin (ESI) batera, ikastetxeekin koordinatuko dituzte jarduketak, ahalik eta lasterren kasu susmagarrien eta baieztatutako kasuen kudeaketa errazteko, kontaktuek behar dituzten jardueretan.

Prebentzio-neurrien edo detekzio goiztiarreko neurrien modulazioa, prebentzioko edo baheketako prozedura gehigarri berriei kudea daiteke. Neurri horiek irizpide teknikoan, egoera epidemiologiko orokorraren edo eremu zehatz, udalerrri edo beste talde batzuen egoeraren arabera zehaztuko dira. Geografia- eta mugikortasun-eremua baloratu behar da Osasun Publikoak zenbait ikastetxetan hautemandako premien eta ikasle nahiz irakasle kolektibo jakin batzuegana irits daitezkeen premien aurrean jarduteko orduan.

Ekintza hauek guztiek eskatzen dute zentroek komunikazio arina eta jarraitua izatea Osasun Publikoko agintariekin eta zaintza epidemiologikoko sarearekin, eta, horretarako, Hezkuntza-sistema - COVID jarraipen batzorde tekniko bat sortuko da lurralde bakoitzean, bai eta sailarteko Hezkuntza-COVID Aholku Batzordea ere Euskadin.

Gerta daitezkeen egoera desberdinen aurrean, kudeaketa-tresnak antolatu eta erabili behar dira azkar erantzuteko, kasu berrien aurrean erantzuteko, arriskuak identifikatzeko eta egon daitezkeen agerraldiak prebenitzeko.



Eskola-eremuan kasu berriak identifikatzeak duen eraginaz jakitun, eta taldeak isolatuta edukitzeak edo ikastetxeren batean gela bat edo batzuk aldi baterako ixteak duen eraginaz ere jabetuta, gardentasuna eta hezkuntza-komunitateari jakinaraztea izango da jarraitu beharreko jardueraren oinarri garrantzitsu bat.

Egungo egoera epidemiologikoaren ondorioz, Osasun Publikoak aurretiko protokoloekin alderatuta alderdi prebentibo gehiago gomendatu ditu, baina ikasturtean zehar ekintzak modulatu daitezke, aipatutako Aholku Batzorde horrek egingo duen etengabeko ebaluazioaren arabera.

## II. XEDEA

Jarduera Protokolo Osagarri honen helburua da [\*Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)\*](#) eta [\*Prebentzio neurriak \(2020-2021 ikasturtea\)\*](#) dokumentuetan ezarritakoez gain, neurri osagarriak planteatzea, 2020-2021 ikasturtearen hasieran, kontuan hartuta pandemiak berriki izan duen egoera eta bilakaera.

Bestalde, ikastetxeetan kasuak agertuz gero jarduteko gidalerro batzuk ere ezartzen dira, beharrezkoak diren prebentzio- eta kontrol-jarraibide eta -neurrietatik abiatuta. Hauek, Osasun Publikoak ezartzen duenaren arabera alda daitezke, intzidentzia areagotzeari, eskola barruko agerraldiak agertzeari edo ikastetxearen eremuan komunitate-transmisioa areagotzeari dagokienez.

## III. PREBENTZIO-NEURRI OSAGARRI OROKORRAK

Aipatutako protokoloetan jasotako neurriez gain, eta oro har, pandemiaren egungo bilakaeran eta ikasturtea laster hasiko denez, neurri osagarri hauek ezarri dira:

### 1. Kontaktuak mugatzea:

- a) Haur Hezkuntzan "burbuila taldeak" ezarriko dira, maskara erabiltzea ez baita nahitaezkoa (gomendagarria bai, ordea). "Burbuila talde" horiek ez dira beste talde [\*edota beste burbuilekin\*](#) harremanetan jarriko, [\*kasu positiboak gertatuz gero ikasle kopuru handiegirik bakartu behar ez izateko \(nahiz eta ikastetxeko Haur Hezkuntzarako proiektu pedagogikoak talde handiak hobetsi\)\*](#). Gainerako hezkuntza-etapetan (LH, DBH eta Batxilergoa), sortutako talde egonkorren arteko harremana ahalik eta gehien murrizten saiatuko da. Bi neurri horien helburua da kutsatzeko arriskua murriztea eta miaketa erraztea.

Zenbait ikastetxetan eskaintzen den eskola-ordutegia hasi aurreko zerbitzuko taldeei dagokienez, talde egonkor desberdinetako ikasleek espazioa partekatzen



badute, aurreko guztiaz gain, zorrotz bete beharko dituzte urruntze-neurriak eta musukoaren erabilera adin guztietan.

- b) Haurreskoletan eta gainerako Haur Eskoletan, aurreko puntuan Haur Hezkuntzarako ezarritako neurriak aplikatuko dira.

## 2. Prebentzio pertsonaleko neurriak:

- a. Egunero, higienerari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egingo dira, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta.
- b. Ikasle eta langile guztiei hartuko zaie gorputz-tenperatura, lanaldia hasi aurretik. Banakako erantzukizunari helduz, ikastetxera joan aurretik etxean bertan **tenperatura hartzea** gomendatzen da, eta ez dira joango sukarra izan (>37º) edo COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak.
- c. Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasle edo irakasleak edo etxean berrogeialdian daudenak, sintomak dituen pertsonaren batekin edo COVID-19 diagnostikatuta duenen batekin kontaktu estua izan dutelako.

Era berean, zentroek neurri hori gauzatzeko termometroak izango dituzte. Tenperatura hartzea lanaldiaren hasieran egitea gomendatzen da (eta beharrezkoa den guztietan), betiere jende pilaketak saihestuz eta gutxienez 1,5 metroko pertsonen arteko distantziari eusten zaiola ziurtatuz.

### d. **Maskara** erabiltzea:

- Arau orokor gisa, ikastetxeko langile eta ikasle guztiek, **6 urtetik beherakoek izan ezik**, nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro.
- **Ikasleen kasuan, maskara higienikoa izango da gutxienez, eta dagokion ziurtagiri edota homologazioa izan beharko du.**
- **Irakasleen kasuan, maskarak dagokion ziurtagiria edota homologazioa izan beharko du, eta dagokion prebentzio-zerbitzuak gomendatutako motakoa izango da; ikastetxe publikoen kasuan, 2020ko [irailaren 18ko zirkularrean gomendatutakoa.](#)**
- Haur Hezkuntzan, 6 urtera arte, maskara ez da nahitaezkoa izango, nahiz eta, posible den kasuetan, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen den.
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ezarritako talde egonkorretan, maskara nahitaezkoa izango da beti, talde egonkorrekin egon edo taldetik atera (garraioa, joan-etorriak). Hala ere maskara kendu ahal izango da aire zabaleko jardueretan, hauek ikasleen arteko kontakturik gabe egiten badira.
- Eskola-garraio kolektiboan derrigorrezkoa izango da 6 urtetik



gorako ikasle guztientzat, baina, ahal izanez gero, adin horretatik behera ere erabiltzea gomendatzen da. Autobusen barruan ezin izango da maskara kentzea dakarren jarduerarik egin (jatea edo edatea).

- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde.
- Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia mantendu beharko da.
- [Ahal dela, ikasleek aire zabaleko espazioetan jango dute hamaiketakoa, segurtasun-distantziari eutsiz, eta maskara berehala jarriko dute berriro.](#)

Ikasturte hasieran hartutako neurri hauek, aldatu egin daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aipatutako protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

- e. Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestu da, pertsonen arteko distantzia eta maskara jantzita mantenduz. Arrisku-eremuak bereziki zainduko dira, hala nola kafe-makina, edo birusa transmititzen lagun dezaketen langileen arteko beste interakzio batzuk.
- f. Hezkuntza Sistema-COVID Jarraipen Batzorde Teknikoak, Komunikazioari eta Koordinazioari buruzko VIII. puntuan definituak, eskolen barruko kasuen eta agerraldien intzidentziaren ebaluazioa egingo du, asteroko bilerekin, eta prebentzioa sustatzeko gomendioak ezarriko ditu.
- g. [Ebaluazio bilerak, eta oro har, irakasleen bilera guztiak, modu telematikoan egitea hobesten da. Dena den, gomendio hori gorabehera, bileraren bat aurrez aurre egitea erabakitzen bada, prebentzio-neurriak hartuko dira, hala nola, aireztapen egokia eta elementu komun desinfezioa. Nolanahi ere, 6 pertsona baino gehiago biltzen badira edo bilera batek ordubete baino gehiago iraungo duela aurreikusten bada, bilera modu telematikoan egingo dira.](#)

#### IV. KUDEAKETA IKASTETXEETAN

1. Ikastetxe bakoitzean, zuzendaritza-taldeen gain, erreferentziazko arduradun bat izendatuko da COVID-19rekin lotutako gaietarako. Era berean, ESI bakoitzean erreferentziazko pertsona bat izendatuko da dagozkion ikastetxearekin komunikatzeko. Komunikazio hau kasu positiboak daudenean bakarrik gertatuko da.
2. Halaber, gomendatzen da elkarrizketa arina ezartzea ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren bidez, **Hezkuntza Saileko Jarraipen**



**Batzorde Orokorren** koordinatzaile gisa, [Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)](#) dokumentuan ezarrita dagoen eran, hainbat egoeraren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.

3. Kasuren bat gertatuz gero, **kontaktuen miaketa azkar eta errazagoa egin ahal izateko**, eta era horretan azterketa eta jarduketa errazteko, ikastetxeari gomendatzen zaio modu antolatuan eta erraz eskuratzeko moduan honako informazio hau jasotzea:
  - Talde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda (EEDk eman dezakeen informazioa; beraz, lehenbailehen ixtea gomendatzen da).
  - Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bakoitzaren kokalekua (non esertzen diren), egiten diren jardueren arriskuaren balorazioa (kontaktu edo hurbiltasun handiagoa duten tailer edo praktketan parte hartzea), eta hauen harremanetarako telefono zenbakiak (mugikorra) eta posta elektronikoa, azkar jardun ahal izateko, bai eta kasu bat agertzean kontaktu estuak lortzea errazten duen informazio guztia ere. Honetarako guztirako, ezinbestekoa da ikasleei eta haien familiei buruzko datuak eguneratuak egotea matrikula-aplikazioan (Ikasgunea).
  - Jantokiko txandako ikasleen zerrenda, eta ahal bada, kokalekua ezagutzea (non esertzen diren), ikasleak beti leku berean kokatzeko ahalegina eginez.
  - Autobus berean garraiatuak izan diren ikasleen zerrenda, eta zein eserlekutan jartzen diren.
  - Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda

Informazio hori kudeatzeko, eta kasu bat agertzen denean kontaktuak ahalik eta lasterren aztertze, zentroko zuzendaritzaren, laneko arriskuaren prebentziorako koordinatzailearen, autobusetako arduradunen eta jantokiko arduradunen arteko koordinazioa behar da, jasotako informazioa datu-base batean edukita.

**Ikastetxeko langileek uneoro zaindu beharko dute identitatearen eta susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen isilpeko tratamendua.**

## V. KASUEN KUDEAKETA

1. **Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak**, ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID-19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.
2. **Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:**



IKASTETXEAN COVID-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek aurrez aurreikusitako jarduketa-protokolo bat jarraituko dute:

- a. Horretarako prestatutako isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita). Gela honek higie eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- b. Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- c. Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid 19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- d. Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- e. Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio.
- f. Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- g. Eragindako pertsona **kasu susmagarritzat** joko da, eta **etxean isolatuta egon** beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) adierazitakoaren arabera.
- h. **Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higie-neurriak zorroztez.** Kasua berresten bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera **identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena** egingez.

### 3. Kasuak baieztatuz gero:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen guraso edo tutoreek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordetzako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

Ikasleen artean baieztatutako kasu positiboen kudeaketarako ikastetxeko Zuzendaritzak edota COVID arduraduna bakarrik koordinatuko dira dagokien ESiko erreferentziatzko pertsonarekin eta Zaintza Sarearekin batera. Horiek, Osasun Publikoarekin koordinatuta, jarraitu beharreko jarraibideak adieraziko dizkiote zentroari.

Kasua baieztatzen bada, **kontaktuen azterketa** egingo da hezkuntza-ingurunean eta





handik kanpo, **kontaktuak identifikatuz, sailkatuz** eta haien **jarraipena eginez**, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.

Ikastetxean **harreman estuak** identifikatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- a. Baieztatutako kasua **talde egonkor** batekoa bada, harreman estuzat hartuko dira **taldeko kide diren pertsona guztiak**.
- b. Konfirmatutako kasua **ez bada talde egonkor batekoa**, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Praktiketako modulua (*practicum*) egiten duten unibertsitate-ikasleen kasuen kudeaketa ikasle propioen kudeaketaren antzekoa izango da, hau da, aurreko paragrafoetan deskribatutako prozeduraren arabera.

Zentroan lan egiten duten langileen esposizioaren balorazioa kasu bakoitzaren arriskuaren ebaluazio espezifikoaren arabera egingo da, SARS-CoV-2-ekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzio-zerbitzuetarako Jarduketa-prozeduran jasotakoaren arabera; beraz, arrisku-kontaktuzat hartzeak prebentzio-neurrien jarraipen zuzena eta babes-elementuen erabilera ekarriko du (distantzia fisikoaren mantentzea eta maskara erabiltzea).

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, Osasun Publikoko zerbitzuarekin koordinatuta, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko bestelako langileak kasu baieztatuaren kontaktu estuzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen **aktiboa** egingo dute estuzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian, Osasun Sailaren [COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan](#) zehazten denaren arabera. PCR probak egitea barne hartuko da, Osasun Publikoko agintariek ezarritako protokoloetan jasotakoaren arabera.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei **informazio** egokia emango zaie **berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko** neurriak betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.

Kontuan hartu beharreko aldia aurreko paragrafoan aipatutako Protokoloan jasotakoa izango da.

Kontaktuak aztertu eta estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.





Beste kasuren bat balego beste gela batean, ikastetxean, Osasun Publikoko jarraibideak bete. Kasuak erlazionatuta egon daitezke, edo ez, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

Eskola-aldian, COVID-19 kasuak detektatuko dira ikastetxe batera joaten diren haurren artean. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, kutsatzea ikastetxean gertatu denik. Horretarako, eskolaz kanpoko ingurunea sartuko da analisisian, ikastetxeko kontaktu estuak ikertzeko beharraz gain.

#### 4. Agerpen-egoeretarako jarraibideak:

**1 Brote ikasgela batean:** 3 kasu edo gehiago talde egonkor bakar batean, haien arteko lotura epidemiologikoarekin.

Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek adierazitako kontrol-jarduera espezifikoei jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzen hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldean izan ezik.

**2. Agerraldi bat hainbat gelatan lotura epidemiologikorik gabe:** 3 kasu edo gehiago talde egonkorretan edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan, kasuen arteko lotura epidemiologikorik gabe.

Osasun Sailak/Osakidetzak talde bakoitzerako adierazten dituen kontrol-jarduera espezifikoei jarraituko zaie.

Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzen hezkuntza-etapa guztietan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa), eragindako taldeetan izan ezik.

**3. Agerraldiak lotura epidemiologikoa duten hainbat gelatan:** kasuak talde egonkor batean baino gehiagotan detektatzea, edo talde egonkor gisa antolatu gabeko klaseetan, talde desberdinen artean nolabaiteko transmisio-maila dutenetan, birusa ikastetxean nola sartzen den kontuan hartu gabe.

Osasun Sailak/Osakidetzak adierazitako kontrol-jarduera espezifikoei jarraituko zaie. Irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraitzen du hezkuntza-etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoa) prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotzen, eragindako taldeetan izan ezik.

**4. Agerraldiak kontrolatu gabeko transmisio baten testuinguruan:** lurralde jakin bateko adin-segmenturako espero baino kopuru handiagoarekin ikastetxean kontrolatu gabeko



transmisioa gertatzen dela uste bada, Osasun Sailaren/Osakidetzaren zerbitzuek neurrien arriskuaren eta beharrezko eskalatzearen ebaluazioa egingo dute.

## VI. ZERBITZU OSAGARRIAK

### **Eskola garraioa:**

COVID-19ren aurkako prebentzio-neurrien inguruan Indarrean dagoen araudia aplikatuko da, bai eta *“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko”* dokumentuan jasotakoak ere.

Era berean, gomendagarria da ikasleek autobusean eserleku jakinak edukitzea, autobus bakoitzean garraiatzen diren haurren zerrenda izatea, eta autobusean zein lekutan esertzen diren jakitea.

6 urte baino nagusiago diren ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara erabiliko dute uneoro. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa erabiltzea, baina, ahal denean, adin horretatik behera erabiltzea ere gomendatzen da.

**Jantokiak.** Jantokiko zerbitzuan *“Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko* dokumentuan ezarritako neurriak errespetatuko dira. Halaber, [“COVID-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan”](#) izeneko dokumentuan jarritakoa ere bai.

## VII. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2020-2021 ikasturtea antolatzeko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenen arabera, eta Bigarren Hezkuntzari dagokionean ere jasotzen denez, 1.1.c) atalean honako hau adierazten dute:

*“Aurreikusitako jarduerak bakarrik osasun-agintariak proposatutako neurriak bermatzen badira programatuko dira, ikasturtean suerta daitekeen edozein agertokitan ere, eta gomendatzen da hartuko diren erabakiei arreta berezia jartzea, beti familien partaidetza eta lankidetzak lagun hartuta.*

*Helburuak, inplikaturako ikasleak eta irakasleak, eta egiteko data, ordua eta tokia zehaztuko dira. Erregistro hori OOG, Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskuera egongo da ikastetxean”.*

Egungo egoera epidemiologikoa kontuan hartuta, Haur Hezkuntzaren kasuan izan ezik, eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dira, betiere ezarritako protokoloak eta Kontingentzia Plana betetzen badira, bai ikastetxearenak bai erakunde antolatzailearenak, eta prebentzio-neurriak errespetatzen badira (urruntzea, higiena



eta maskararen erabilera).

Egoeraren bilakaera aztertzen jarraituko da, eta eskolaz kanpoko jarduerekin lotutako neurri berriak hartuko dira. Halaber, LABIk sortutako edozein prebentzio edo babes neurria puntu honetan zehaztutakoaren gainetik egongo da.

## VIII. KOMUNIKAZIOA ETA KOORDINAZIOA

Kontuan hartu eta indartu [Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra \(2020-2021 ikasturtea\)](#) eta [Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko dokumentuetan ezarritako jarraibideak](#).

Kasu bat gertatzen denean edo agerraldi bat identifikatzen den egoeretan ezarri beharreko jarduketan berri emango zaio hezkuntza-komunitateari, bai eta neurri berriak ezartzeko aukeraren berri ere, baldintza jakin batzuk gertatzen badira.

Halaber, gomendatzen da ikastetxeak komunikazio-kanal arin eta eraginkorra ezarrita izatea familiekin. Eranskin gisa, familientzako dekalogo bat gehitu da, ikasturte berri honen hasieran komunikaziorako baliagarri izan daitekeena.

### **2020-2021 ikasturtearen hasieran planteatutako neurri hauek guztiak pandemiaren bilakaeraren eta osasun-agintariek emandako jarraibideen mende daude.**

Osasun Publikoko arduradunekin eta zaintza epidemiologikoko sarearekin komunikazio arina eta jarraitua izateko, eta egoeraren bilakaeraren, balorazioaren eta aurreikusitako neurriak hartzearen edo ekintzen modulazioaren jarraipena egin ahal izateko, **Hezkuntza Sistema-COVID Jarraipenerako Batzorde Tekniko** bat egongo da, Osasun Publikoa edota Osakidetzako eta Hezkuntza Saileko ordezkariak osatua. (Hezkuntza Sailaren aldetik, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria eta Lurralde-Ordezkaririk). Kasuak eta kasuistika aztertu eta neurri bereziak hartuko ditu, astero bilduz.

## IX. IKASTURTE HASIERA

Ikasturte-hasiera ahalik eta segurtasun-berme handienekin garatu ahal izateko, eta, aldi berean, Osasun Publikoarekin koordinazio eta kudeaketa ona eraman ahal izateko, pandemiaren transmisioaren egungo egoeran, irailean ikasleak ikastetxeetara era mailakatuan sartzea onetsi da.

Hori horrela, 2020ko ekainaren 12ko ikasturteko egutegiaren Ebazpenean jasota dagoenez, ikastetxe publikoetako irakasle guztiak irailaren 1ean sartuko dira ikastetxean, 2020-2021 ikasturtearen hasierarekin lotutako jarduerak egiteko.



Ikastetxe guztietako eskola-jarduerak 2020ko irailaren 7tik aurrera hasiko dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, ikastetxe bakoitzak bere ikasturteko egutegian jasotzen duen eran.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailatik aurrerako eta Batxilergoko ikasleen kasuan, irailaren 15ean hasiko dira ikasleak ikastetxeetan sartzen eta eskola-jarduera garatzen.

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen eta Ikastetxe Espezifikoen kasuan, heziketa-zikloen eta lanbide-arloen antolamenduaren ezaugarriak kontuan hartuta, ikasgeletan, tailerretan, laborategietan eta enpresetako prestakuntzan, ikasturte-hasiera mailaka egingo da, mailen arteko astebeteko tartearekin:

- Irailak 14: Goi-mailako heziketa-zikloak, 2. maila
- Irailak 16: Goi-mailako heziketa-zikloak, 1. maila
- Irailak 21: Erdi-mailako heziketa zikloak, 2.maila
- Irailak 23: Erdi-mailako heziketa zikloak, 1.maila
- Irailak 28: Oinarrizko Lanbide Heziketa, 2.maila \*
- Irailak 30: Oinarrizko Lanbide Heziketa, 1.maila \*

\* Oinarrizko Lanbide Heziketaren kasuan, ikastetxe independente eta ez-integratu batean gauzatzen bada, ikasleak irailaren 14an eta 16an hasiko dira lanean, hurrenez hurren.

## X. GABONETAKO OPORREN OSTEKO ITZULERA.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikasturte hasieran egin zuen moduan, Gabonen ostean, urte hasieran ere, klase presentzialaren aldeko apustu irmoa egiten du, hezkuntza-maila guztietan, ikasle guztientzako hezkuntza integrala eta kalitate gorenekoa bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, Gabonetako oporren itzuleran, ikastetxeetan segurtasun-berme handienarekin jokatzeko neurriak aurreikusi behar dira, denon hobe beharrez, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.

Gabonen eta urte berriaren ondoren kasuak areagotuko balira, ikastetxe bakoitzaren Kontingentzia Planak aurreikusi beharko du eskenatoki hori, gerta daitezkeen egoerei egoki erantzun ahal izateko, betiere, pandemiaren bilakaeraren arabera egokituko diren osasun-agintarien jarraibideak kontuan hartuta.




Covid-19k eragindako egoerei erantzuteko, orain arte bezala, zentroak honako dokumentu hauek izango ditu erreferentzia gisa ([Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko webgunean aurki daitezke](#)):

1. Ikasturte hasierarako Jarduketa-protokolo Osagarria eta ikastetxeetan COVID-19 kasuak agertzen direnerako Jardunbideak (azken eguneratzea)



2. Ikastetxeetan koronabirusaren aurrean jarduteko Protokolo Orokorra
3. 2020-2021 ikasturtea antolatzeko Ebazpenak
4. Ikastetxeko Kontingentzia Plana
5. Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko

Halaber, Euskal Autonomi Erkidegoko Ikastetxeetan Koronabirusaren aurrean zer-nola jarduteko Protokolo Orokorra zioen moduan, osasun egoeraren arabera hezkuntza-jarduera hiru agertokitan aurreikusten da.

<p><b>1. AGERTOKIA</b></p>  <p><b>AURREZ AURRE</b></p>	<p><b>1. LEHEN Agertokia:</b> aurrez aurreko ikaskuntza jarduera mantentzen da, COVID-19ari aurre egiteko segurtasun-eta higiene-neurriekin.</p>
<p><b>2. AGERTOKIA</b></p>  <p><b>AURREZ AURRE + TELEMATIKOA</b></p>	<p><b>2. BIGARREN Agertokia:</b> Tarteko egoera bat non ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzera behartuko dituen, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko.</p>
<p><b>3. AGERTOKIA</b></p>  <p><b>TELEMATIKOA</b></p>	<p><b>3. HIRUGARREN Agertokia:</b> Konfinamendu egoera batean kokatzen dena non irakaskuntza eta ikaskuntza jarduera, eskolatik kanpo emango litzateke.</p>

Arestian esan bezala, Gabonetako oporren osteko itzuleran, **lehendabiziko agertokia aurreikusten da** etapa guztietan.

Dena den, tokian tokiko baldintzek eta osasun agintariek horrela gomendatuz gero, ikastetxeren batek beste agertoki batera pasa beharko balu, ikastetxeko zuzendaritza Lurralde Ordezkariekin jarriko da harremanetan egoera bideratzeko.



## 1 ERANSKINA. FAMILIENTZAKO DEKALOGOA

Ikasturte hasiera honetan ezinbestekoa izango da ikastetxeetan segurtasuna bermatzeko zenbait neurri errespetatzea.

Dekalogo honetan, ikastetxeari hertsiki ez dagozkion arren, zentroarekin lotuta dauden eremuak ere nabarmentzen dira; beraz, eremu horien gaineko kontrola, hala nola informazioa transmititzea beharrezko denean, birusaren kutsatzea kontrolatzeko bermea izango da, eta, hala badagokio, foku posibleak detektatzeko trazabilitate egokia lortzea.

Dekalogo hau, lehenetasunez, adin txikiko seme-alabak dituzten familiei edo ikastetxeetan ezarritako jarraibideen transmisio egokia mugatzen duen desgaitasunen bat duten ikasleen familiei zuzenduta dago.

Jakina, ikasturte hasieran bilerak egingo dira familiekin, ikastetxe bakoitzak bere kontingentzia-planean jaso dituen neurrien berri emateko, Osasun Sailak jakinarazitako irizpideak betetzen direla bermatuz. Hala ere, gorago aipatu bezala, ikastetxetik kanpoko espazioak, jarduerak eta zirkunstantziak azpimarratu nahi dira.

1. Hurrek ezin dute ikastetxera joan sukarra (>37°C) badute. Horrek esan nahi du familiek ikastetxera iritsi aurretik tenperatura hartu behar dietela.
2. Pertsona bakarra joango da ikastetxera ikaslearen lagun, eskola-egunaren hasieran edo amaieran, eta, ahal den neurrian, pertsona bera izango dabeti.
3. Familiak ikastetxean sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua, berariazko baimena edo horretarako deialdia izan beharko dute (egokitzapen-aldirako, bileretarako, prestakuntzarako, etab.).
4. Laguntzaileak ezin izango dira inguruan geratu, taldekatzeak eratu.
5. Haur guztiek izan beharko dute beren maskara, eskola-egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituena.
6. Familiak lankidetzan arituko dira ikastetxeak oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, hala nola:
  - ikastetxeko seinaleak errespetatzea
  - maskara erabiltzea
  - eskuak garbitzea
  - aretoak aireztatzea
  - bizikidetzat-talde egonkorreko kide izatea
7. Ikasle batek sintomak baditu ikastetxean, familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).



8. Ikasleak sintomak baditu etxean, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
9. Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
10. Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.

Gogoraraztekoa da, beharrezkoa dela COVID-19ren bilakaeraren inguruan informatuta izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai sintomatologiari dagokionez, bai transmisioa prebenitzeko moduari dagokionez.

Informazio hori etengabe eguneratuta dago Osasun Sailaren

webgunean: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria> (euskaraz) <https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/> (gaztelaniaz)

Azkenik, eta aldi horretan familiei laguntzeko, Hezkuntza Sailak "COVID-19, familientzako orientabideak" izeneko dokumentu bat argitaratu du, etxean osasun fisikoa eta emozionala zaintzeko gomendio erraz batzuekin.